

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ESKUERNAGAKO UDALA

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako Eskuemagako, Mañuetako eta Samaniegoko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Idazkari-kontuhartzaile lanpostua bete behar da, hutsik dagoelako.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak kontuan hartuta, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. Prozedura abiaraztea Arabako Foru Aldundiari proposatzeko izenda dezala estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat Eskuernagako, Mañuetako eta Samaniegoko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan jasotako moduetakoren batean.

Bigarrena. Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, hautagaiek bete beharreko lanposturako eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan eredian eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako erezimen-
duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Bigarrena. Hautagaien lehentasun ordena ezarri ondoren, eta Eskuernagako, Mañuetako eta Samaniegoko Udalak izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, bost egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Hirugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Laugarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Bosgarrena. Lanpostuaren ezaugarriak.

Izena: idazkari-kontuhartzailea.

Lan harremana: estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estaturako gaikuntza.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailletza.

Taldea: A1-A2.

Destino-osagarria: 11.728,08 euro.

Berariazko osagarria: 28.105,56 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4; derrigortasun data: 2020ko abuztuaren 31.

Eskuernaga, 2024ko abenduaren 4a

Alkatea

IÑAKI PEREZ BERRUECO

ERANSKINA

Nik, jaunak/and:.....; jakinarazpenetarako helbidea:.....; telefono zenbakia:; Estaturako gaikuntzaduen toki administrazioko funtzionarioa: azpieskalakoa; gaur egun..... lanpostuan dihardut, toki erakundean, (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran –lankidetzaren lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik–).

ADIERAZTEN DUT

Jakin dudala Eskuernagako, Mañuetako eta Samaniegoko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, eta behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunetan edo zereginen pilaketagatik betetzeko aukera dagoela.

Betetzen ditudala lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

ESKATZEN DUT

Eskuernagako, Mañuetako eta Samaniegoko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunetan edo zereginen pilaketagatik (ezabatu soberan dagoena) betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honako hauek eransten ditut:

*NANaren fotokopia.

*Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

*Lanpostua zereginen pilaketagatik eskatuz gero, zereginen pilaketengatiko izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

....., 20koaren(a).

Sinadura